



## **BALIO PROPOSAMENA**

Guk sortutako Oiangu baserriko hezigunearen balioen artean ugari dira gainontzeko antzeko produktuetatik bereizten gaituztenak:

Balio kualitatiboa **hezkuntza eredua** izango litzateke; proiektu honen ardatza etengabeko heziketaren garrantzia da. Hau da, haurrei, familiei zein hezitzaile edo norbanakori hezteko aukera eskaintzen dugu, hezkuntza komunitatearen partaide izateko aukera emanez

Duela urte batzuk Ttiklik izeneko hezigunea kokatzen zen gure eskualdean. Dena den, duela bi urte zerbitzu hori eskaintzeari utzi zion. Orduz geroztik, hutsune bat nabari da hezkuntza komunitatean. Beraz, hutsarte horri erantzun nahiean eta **berritasuna** eman nahiean Oiangu hezigunea sortu da.

Ttiklik hezigunea herri eremuan kokatzen zen, aldiz, guk naturaz inguraturik dagoen Oiangu parkean eskaintzen dugu zerbitzua, **prestazio** apropos bat eskainiz. Gure hezigunean naturari garrantzi handia ematen diogu, izan ere ikasgela dinamiko bat da natura, aldakorra eta beti eskaintzen du aukera berriren bat. Naturara gerturatzea bilatzen du hezigune honek, patxadazko lekua izateaz gain, gaitasun asko garatzeko aukera ematen baitu.

**Pertsonalizazioa** gure proiektuaren ezaugarrietako bat da. Izan ere, espazio zabala izanik giza talde desberdinentzako aukerak eskaintzen ditugu. Haurrentzat zein helduentzat espazio eta material ezberdinak daude. Horrez gain, bertako instalazioak aniztasun funtzionaleko pertsonentzat zein adinekoentzat egokituta daude.



**Eskuragarritasunari** dagokionez, gure enpresak hainbat erakunde publiko, pribatu eta kontzertatuekin lan egiteko aukera ematen du (ikastola, aisialdi talde...), eta honekin bat, norbanakoarentzat ere hainbat jarduera edo eta ekintza eskuragarri jartzen ditu. Bezero egiten diren horiei ere nolabaiteko eskaintza bereziak ahalbidetuz.

Ordainketari dagokionez, ekonomia maila ezberdina duten familiei **prezio** eskaintza ezberdinak zabaltzen zaizkie, hauek aukera izan dezaten hezigunearen eskaintzez gozatzeko.